

EUSKADIKO KANOE FEDERAKUNTZAREN
HAUSTEKUNDE ARAUTEGIA



Indarrean, 2012ko uztailaren 10etik



EUSKADIKO KANOE FEDERAZIOAREN **HAUTESKUNDE ARAUDIA**

Xedapen orokorrak

1. artikulua

Araudi honek Euskadiko Kanoe Federazioaren hauteskunde-prozesua arautzen du.

Hauteskunde-prozesuak, halaber, arau hauek beteko ditu:

- Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko agindua; horren bidez, hauteskunde-araudiak prestatzeko eta euskal kirol federazioetako hauteskundeak egiteko irizpideak ezarri dituzte;
- Euskal Kirolaren 14/1998 Legea;
- Euskal Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretua;
- Euskadiko Kanoe Federazioaren estatutuak.

Gainera, osagarri moduan, aplikaziozkoa izango da Administrazio Prozeduraren araubide orokorrean eta Euskadin indarrean dagoen hauteskunde-araubidearen arauketa berezian eta orokorrean jasotakoa.

2. artikulua

Lau urtetik behin egingo dira hauteskundeak, udako Joko Olinpikoekin bat etorritz.

Edonola ere, hauteskunde-prozesuak Administrazio publiko eskudunak ezarritako denborak eta epeak errespetatu beharko ditu.

3. artikulua

Botoa askea, zuzenekoa, balio berekoa eta sekretua izango da.

4. artikulua



Hautesle-erroldan nahiz hauteskunde-prozesu osoan jasotako datuen tratamenduak eta azalpen publikoak helburu bakarra dute: sufragio-eskubidea bermatzea; ezingo dira, hortaz, beste helburu baterako erabili, ezta eman ere.

Edonola ere, aplikaziozkoa izango da datuak babesteko arloan indarrean dagoen eskumeneko legean jasotakoa.

Hauteskunde-deialdia

5. artikulua

Kanoeko hiru Lurralde Federazioetako hauteskunde-prozesuak amaituta, Euskadiko Kanoe Federazioko lehendakaria hauteskunde-prozesua izapidetzen hasiko da.

Era berean, Kanoeko Lurralde Federazio batek hauteskunde-prozesua urriaren 31 baino lehen amaitzen ez badu, udako Joko Olinpikoak egiten diren urtean, Euskadiko Kanoe Federazioak hauteskunde-prozesuari hasiera eman diezaioke urte olinpiko bakoitzeko azaroaren 1ean.

Deialdia adostu eta gero, publikoki jakinaraziko da, Euskadiko Kanoe Federazioaren lokaletan, eta federatuen artean banatuko da.

6. artikulua

Euskadiko Kanoe Federazioko funtziotako lehendakariak Hauteskunde Batzarreko bilera deitu beharko du, hilabeteko epean, gehienez ere, hauteskunde-prozesuari hasiera emateko.

Epea amaituta hauteskunde batzarrik deitu ez badu, Federazioko batzar nagusiko edozein kidek —Federazioko kide guztien % 5 ordezkatzen badu, betiere— hauteskunde Batzarreko bilera dei dezake.

Batzarra eratzea

7. artikulua

Hauteskunde-batzordeak hiru lurralde federazioetako estamentu bakoitzari Euskal Federazioaren batzarrean dagokion ordezkaritza kopurua esleituko dio, lurralde-estamentu bakoitzak dituen lizentzien eta guztira dauden lizentzien arabera.



Lurralde-federazioetako batzar nagusiko pertsona fisikoek eta juridikoek osatzen dute Euskal Federazioaren errolda. Pertsona fisikoa izango da batzarkidea, eta ez haren ordezkari jarraitzen duen pertsona fisikoa.

Euskadiko Kanoe Federazioaren batzar nagusia, Federazioko estamentuetako ordezkariak osatuko dute, hain zuzen.

Hain zuzen ere, batzarra honela osatuko da:

- A) Batzarreko kide guztien % 70 kirol-taldeen eta klubaren estamenturako, klub bakoitzeko bi ordezkari.
- B) Batzarreko kideen eta botoen guztiarekiko % 15 ordezkari Kirolarien Estamentuari dagokio.
- C) Teknikariaren, Estamentuko ordezkariaren. Batzarreko kideen eta botoen Guztiarekiko % 8 Teknikari jaun/andreen Estamentuari dagokio.
- D) Arbitroen eta Epaiaren Estamentuko ordezkariaren. Batzarreko kideen eta botoen guztiarekiko % 7 Arbitro eta Epaiaren jai/andren estamentuari dagokio.

Lurralde Federazio jakin bateko Estamenturen batek kiderik ez badu, plaza horiek lurralde federazio bereko beste Estamentuei proportzionalki banatuko zaizkie.

8. artikulua

Batzarkide izateko, estamentu ezberdinetako ordezkariak hautatuak izan zireneko izaera mantendu beharko dute (kirolaria, epailea- arbitroa, teknikaria- entrenatzailea, kluba edo kirol-taldea), dagokion federazio-lizentzia betez, edonola ere. Legealdian izaera hori mantentzen ez duenak Euskadiko Kanoe Federazioko batzarkide izateari utziko dio.

Legealdian, Batzar Nagusiko plaza hutsak betetzeko garaian, Hauteskunde Batzarrak ordezkariak izendatuko ditu, eta, nahikoak ez badira, hauteskunde partzialak egingo dira. Hauteskunde partzial bakarra egin daiteke lau urteko agintaldi bakoitzean. Hautaketa partziala egiteko bi urte igaro beharko dira, gutxienez, agintaldia hasi denetik.

9. artikulua

Lurralde Federazio bakoitzari zenbat ordezkari esleitu zaizkion jakinaraziko diote, eta Euskal Federazioaren iragarki-oholean eta hiru Lurralde Federazioetako iragarki-oholetan jarriko da.



10. artikulua

Lurralde Federazioetako Batzarrek batzarkideak izendatzeko bozketak egingo dituzte, eta kide horiek Euskadiko Kanoe Federazioko batzarkideak izango dira, bertako Hauteskunde-batzordean erabakitakoari jarraiki.

11. artikulua

Euskadiko Kanoe Federazioko Batzarrean parte hartuko duten lurralde-ordezkariek Lurralde Batzarretako kide izan behar dira.

Euskal Federazioak ez die lurralde-federazioetako kide izateko beharrezko den lizentzia-kopurua baino lizentzia gehiago eskatuko kirol-klubei eta -taldeei.

12. artikulua

Lurralde Federazioek beren Hauteskunde Batzarretan adostutako izendapenak jakinarazi ostean, Hauteskunde-batzordeak Euskadiko Kanoe Federazioko Batzarra eratuko du.

Hauteskunde-batzordea

13. artikulua

Euskadiko Kanoe Federazioko Hauteskunde-batzordea kide anitzeko organoa da, eta hauteskunde-prozesua bultzatu eta zuzentasunez garatzen dela bermatu behar du.

14. artikulua

Hauteskunde Batzordeko kideak bolondresak izan ahal dira betiere Batzar Nagusira bertaraturikoen 2/3ek hala onartzen badute. Behar adina bolondresik egon ezean, Hauteskunde-batzordeko kideak eta ordezkoak zozketa bidez hautatuko dira, hautagaiak ez diren Hauteskunde-errodan sartutako pertsona fisiko guztien artetik.

Hauek dira Hauteskunde-batzordeko kideak: lehendakaria, idazkaria eta bokala. Horrez gain, batzordeak hiru ordezko izango ditu.

Batzordekideek hautatuko dituzte lehendakaria eta idazkaria, eta inor ere ez izendatu edo hautatzen ez bada, lehendakaria kiderik zaharrena izango da, eta idazkaria, aldiz, gazteena.



Pertsona hautatuek kargua onartu beharko dute.

Hauteskunde-batzarkideak lau urtez izango dira batzarkide.

Hauteskunde-batzordeak —desegin edo kargugabetu daiteke— funtziotan jarraituko du batzorde berria izendatu arte.

15. artikulua

Hauteskunde-batzordeak funtzio hauek bete behar ditu:

- a) Hauteskunde-errola eta Hauteskunde-egutegia onartzea.
- b) Aurkeztutako hautagaiak onartzea, jakinaraztea eta argitaratzea.
- c) Hauteskunde-mahaia izendatzea.
- d) Aurkezten diren kontra-egiteen, erreklamazioen eta eskaeren gaineko erabakiak hartzea, eta Hauteskunde-mahaiko erabakien kontrako errekurtsoak ebaztea.
- e) Hauteskunde-aginduak interpretatzea eta egon litezkeen araudi-hutsuneak betetzea.
- f) Botoa emateko txartelen, gutun-azalen, hautagai-inprimakien eta antzeko agirien modelo ofizialak onartzea.
- g) Hauteskunde-ekitaldiak federazioaren egoitza sozialetik kanpo egiteko baimena ematea.
- h) Egindako kontsultak ebaztea.
- i) Dagokion diziplina-batzordeari Hauteskunde-prozesuarekin zerikusia duten gertaeren berri ematea, diziplinazko arau-hausteak baldin badira.
- j) Hautetsitako hautagaiak jakinaraztea.
- k) Hauteskundeei eta horien emaitzei zuzenean eragiten dien beste edozein kontu.

16. artikulua

Batzordea osatzeko, bilerara bi batzordekide bertaratzearekin nahikoa izango da.

Hauteskunde-batzordeko akordioak botoen gehiengoarekin hartuko dira. Berdinketarik balego, lehendakariak izango du kalitateko botoa, eta besteei gailenduko zaio.

Kideren batek gehiengoaren aurkako botoa ematen badu eta boto hori justifikatuta eta bilerako aktan jasota badago, botoa eman duenak erantzukizunetatik libre egongo da.

17. artikulua

Hauteskunde-batzordeko akordioen berri emango zaie interesdunei, eta Federazioko iragarki-oholean argitaratuko dira.



Hauteskunde-batzordeak hartutako akordioei errekurtsua jar dakieke. Horretarako, lehenbizi Hauteskunde-batzordeari aurkeztu beharko zaizkio, 2 egun balioduneko epean. Era berean, errekurtsu horien gaineko ebazpenei errekurtsua jar dakieke Kirol Justiziako Euskal Batzordean, zazpi egun balioduneko epean.

Bilera bakoitzean akta idatziko da, eta Hauteskunde-batzordeko kide guztiek sinatu beharko dute.

Hauteskunde-mahaia

18. artikulua

Hauteskunde-batzordeak zozketa egingo du hautagai izango ez diren boto-emaitzen artean —pertsone fisiko nahiz juridiko izan—, Hauteskunde-mahaia izendatzeko. Hiru kidek eta hiru ordezkok osatuko dute Mahaia, eta Hauteskunde-batzordeak lehendakaria eta idazkaria espresuki izendatuko ditu, edo, inor izendatzen ez bada, lehendakaria kiderik zaharrena izango da, eta idazkaria, aldiz, gazteena.

Hautatua izan den pertsona juridikoek izendatutako pertsona fisikoak kide izan daitezke. Pertsona fisikoak ezingo dira agintaldi osoan pertsona juridikoekin ordeztu.

Hauteskunde-mahaia Euskadiko Kanoe Federazioaren helbidean osatuko da.

Hauteskunde-mahaia osatzeko, gutxienez bi mahaikide bertaratu behar dira.

Hauteskunde-mahaiko akordioak eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, eta berdinketarik badago, lehendakariaren botoa gailenduko da. Kideren batek aurkako botoa ematen badu eta boto hori justifikatuta badago, botoa eman duenak erantzukizunetatik libre egongo da.

Hauteskunde-mahaiaren erabakien berri emango zaie interesdunei, eta Federazioaren iragarki-oholean jarriko dira.

Hauteskunde-mahaiaren erabakiei kontra egin nahi dienak Hauteskunde-batzordera jo behar du, bi egun balioduneko epean.

Hauteskunde-batzordeak Hauteskunde-mahaiaren akordioen errekurtsuak edo kontraegiteak ebatziko ditu, eta ebazpen horiei ere errekurtsua jar dakieke Kirol Justiziako Euskal Batzordean, 7 egun naturaleko epean.



19. artikulua

Hautagaiak kontu-hartzaileak izenda ditzakete edo Hauteskunde-mahaian kontu-hartzaile gisa aritu. Horien funtzio bakarra bozketara eta botoen kontaktetara bertaratzea da, eta eskubidea dute hauteskundearen garapenari eta bozketari eta boto-kontaktetari buruz egiten dituzten oharra eta erreklamazioak aktan jasotzeko.

20. artikulua

Hauteskunde-mahaia funtzioak:

- a) Bozketak behar bezala egiten direla bermatzea.
- b) Boto-emaileen nortasuna eta hautesle diren egiaztatzea.
- c) Botoak baliozkoak diren erabakitzea.
- d) Botoak zenbatzea, horiek emateko epea amaituta.
- e) Bozketari buruzko beste edozein gaitu ebaztea.

21. artikulua

Hauteskunde-mahaia idazkariak akta idatziko du, eta bertan jasota geratuko dira boto-emaileen zerrenda, bozketan izandako gertakariak, erreklamazioak eta emandako boto baliodunak, boto baliogabeak eta boto zuriak.

Lehendakariak, idazkariak eta bokalak akta sinatuko dute, eta Hauteskunde-batzordeari bidaliko zaio, boto baliogabeekin edo kontra-egindako botoekin batera.

Hauteskunde-prozesuan hautagai direnek ezingo dute inolaz ere Hauteskunde-batzordean edo Hauteskunde-mahaian parte hartu. Bateriaezintasunik dagoen ezartzeko, kontuan hartuko da hautagai izateko borondatea zein egunetan adierazi den, hau da, hautagai izatea onartzen den eguna, izendapena itxaron behar izan gabe.

Zuzendaritza-batzarreko lehendakaria hautatzea

22. artikulua

Euskadiko Kanoe Federazioko lehendakariak Federazioko Batzarraren kide izan beharko du, edo bertako kide den pertsona juridikoa baten ordeztatu. Pertsona juridikoen ordezkaria lehendakaria edo ordezkari dela modu sinesgarrian egiaztatzen duen pertsona bat izango da.



Bigarren kasu horretan, ordezkariak Kirol-klubeko edo -elkarteko idazkariak igorritako ziurtagiria aurkeztuko du, eta lehendakariaren oniritzia izan beharko du.

Euskadiko Kanoe Federazioko lehendakaria ezin da aldi berean klub edo kirol-talde bateko lehendakari izan, ezta Federazioko Batzarreko kide den beste edozein pertsona juridiko ere. Lehendakari hautatzekotan, bestelako karguak utzi beharko ditu, eta Federazioko lehendakari kargua bakarrik bete.

23. artikulua

Lehendakaritzarako eta Zuzendaritza Batzorderako hautagaitza idatziz aurkeztu beharko da beti, eta idatzian izen-abizenak, NAN zenbakia, eta kargua bete nahi duten pertsona guztien lizentziak jaso beharko dira. Horrez gain, hautagaitza bakoitza zein karguri dagokion adierazi beharko da, eta hori zehaztu ezean, lehendakaritzarako hautagaia zerrendaburua dela iritziko zaio. Hala badagokio, Batzarrean pertsona juridiko baten ordezkari betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko da.

24. artikulua

Euskadiko Kanoe Federazioko Batzar Nagusiko kideak izendatuta, Hauteskunde-batzarrak zazpi egun naturaleko epea ezarriko du lehendakari eta/edo zuzendaritza batzarreko hautagaitzak aurkezteko. Hautagaitzak aurkezteko epea amaituta, Hauteskunde-batzarra bilduko da, haren onargarritasunari edo onargarritasun ezari buruz erabakitzeko; edonola ere, errekurtsioa jar daiteke federazioaren hauteskunde organo beraren aurrean, bi egun balioduneko epean. Hautagaitza batek konpon daitezkeen akatsak baditu, interesdunari bi egun balioduneko epea emango zaio, akats horiek konpontzeko.

Bileraren garapena

25. artikulua

Hauteskunde-batzordeak bilera deituko du, Hauteskunde-egutegian zehaztutako datan, eta hau izango da gai-zerrenda:

1. Batzarra osatzea.
2. Hauteskunde-mahaiaren osatzea.
3. Lehendakaria eta Zuzendaritza-batzarra hautatzea.



Kideen gehiengoa bertaratzen bada, Batzarra lehenengo deialdian osatuta egongo da, eta bigarren deialdi bat egin behar bada, bertaraturikoen kopurua edozein dela ere, osatutzat emango da.

26. artikulua

Batzarra bildu bezain laster, Hauteskunde-mahaia eratuko da.

27. artikulua

Ez da onartuko botoa ordezkari baten bidez ematea, ezta postaz bidaltzea ere. Era berean, pertsona fisikoek ezingo dute kirol-klub edo -talde bat baino gehiagoren ordezkari izan.

28. artikulua

Hautagai-zerrenda bakarra badago, lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea izendatuko dira bertako zerrenda-gaietatik, bozketarik egin gabe.

Zerrendarik ez badago, Hauteskunde-batzordeak epe berria jarriko du hautagaitzak aurkezteko. Bigarren epe horretan hautagairik aurkezten ez bada, Hauteskunde-batzordeak egoeraren berri emango dio funtziotako lehendakariari, eta har Batzar Nagusiaren ezohiko bilera deituko du, hautagaitza-ezaren ondorioz Federazioa desegin behar den eztabaidatzeko.

29. artikulua

Batzarreko bilera hasi ostean, lehendakarirako eta Zuzendaritza Batzorderako hautagaiak aurkeztu eta hautatuko dira.

Hautagaia botoen gehiengo soilez hautatuko da.

Txartel bakoitzean, zerrenda bateko hautagaiak bozka daitezke soilik. Mahaiak botoak zenbatuko ditu, berehala, eta gehiengoa lortu duten zerrenda-kideetatik Euskadiko Kanoe Federazioaren lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea izendatuko dira.

Berdinketarik balego, bozketa berria egingo da. Berdinketarekin jarraitzen bada, emakume bat buru duten zerrendak hautatuko dira. Oraindik ere berdinketa mantenduz gero, Hauteskunde-batzordeak zozketa egingo du berdinketa lortu duten hautagaitzen artean, zazpi eguneko epean gehienez ere.



30. artikulua

Lehendakari berria eta Zuzendaritza Batzordea izendatu ostean, horiek zuzenduko dituzte batzarreko eztabaidak, Hauteskunde-batzordean hauteskunderi dagokienez egon daitezkeen erreklamazioak alde batera utzita. Behin betiko izendapenak ezarri ondoren, hautatuko pertsonak beren funtzioak bete ditzakete kargua hartzeko ekitaldi formalik egin behar gabe.

31. artikulua

Hogeita lau orduko epean, Hauteskunde-mahaiak akta bidaliko dio Hauteskunde-batzordeari, eta hark emaitzak argitaratuko ditu, hiru eguneko epean.

Joseba Saies
Presidentea

Olatz Alkorta
Idazkaria